

GRADU AMAIERAKO LANA

NESKAK XEDE:
CHICK-LIT FENOMENOA HAUR ETA GAZTE LITERATURAN

Egilea: Fernandez Agirre, Ainhoa

Tutorea: Otegi, Itziar

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/18 IKASTURTEA

UPV/EHU

GASTEIZ

LABURPENA

Literaturak historian zehar izan dituen aldaketek fenomeno berrien agerpena eragin dute, besteak beste Chick-Lit fenomenoa. Emakumeak literaturan izan duen inbisibilizazioarekin apurtu nahian, emakumeen kontsumorako sortu den literatura motarekin lotzen da fenomeno hau eta, postfeminismoaren ezaugarriak biltzen dituen literatura izanik, feminitatearen arau berriak ezartzen ditu. Chick-Lit fenomenoak industria literarioan urte gutxi daramatzan arren, literatura honek publikoaren artean izan duen harrera handia izan da, eta, ondorioz, merkatuak geroz eta gehiago produzitu du. Produkzioa hartzaile desberdinetara zabaldu da eta, hasiera batean bakarrik helduentzako literatura zena, haur eta gazte literaturan ere Chick-Lit- en arrastoak bereizi dira. Lan honen bidez, Chick-Lit fenomenoaren HGL-n nola gorpuzten den aztertu nahi da.

Hitz gakoak: haur eta gazte literatura, postfeminismoa, Chick-Lit fenomenoaren, estereotipoak, paraliteratura.

RESUMEN

Los cambios que ha habido a lo largo de la historia en el mundo literario ha hecho que aparezcan nuevos fenómenos, como es el caso de la Chick-Lit. Con el objetivo de romper con la invisibilización de la mujer en la literatura nace este fenómeno, dirigido para el consumo de mujeres, que cumple con las características del postfeminismo, el cual propone nuevas norma en torno a la feminidad. A pesar de que la Chick-Lit sea nueva en la industria literaria, ha tenido una gran acogida entre el público, y por ello la producción en el mercado ha incrementado considerablemente. Tanto, que dicha producción se ha expandido en cuanto a lectoras y lo que en un principio era para adultos, en la literatura infantil y juvenil se han encontrado rastros de la Chick-Lit. Mediante este trabajo se estudiará la manera en la que el fenómeno de Chick-Lit se manifiesta en la literatura infantil y juvenil.

Palabras clave: literatura infantil y juvenil, postfeminismo, fenómeno Chick-Lit, estereotipo, paraliteratura

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1. or.
2. JUSTIFIKAZIOA.....	2. or.
3. MARKO TEORIKOA	5. or.
3.1. Literatura eta haur eta gazte literatura.....	5. or.
3.2. Haur eta gazte literaturaren inguruko ikuspuntuak.....	6. or.
3.3. Haur eta gazte literaturaren historia eta eboluzioa Espainian eta Euskal Herrian: sintesi bat	8. or.
3.4. Haur eta gazte literaturaren egoera gaur egun.	11. or.
3.5. Postfeminismoa eta literatura	13. or.
3.6. Zer da Chick-Lit fenomeno?	15. or.
4. IKERKETAREN ABIAPUNTUA ETA HELBURUAK.....	21.or.
5. METODOLOGIA.....	22. or.
6. EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	24. or.
7. ONDORIOAK	34. or.
8. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	36. or.
9. BIBLIOGRAFIA.....	37. or.
10. ERANSKINAK.....	41. or.

Lehen hezkuntzako gradu azken kurtsoarekin batera, gradu amaierako lana egiteko garaia iritsi da. Izenak dioen bezala, lan hau graduan egingo den azkena izango da, eta honekin lau urteko etapari amaiera emango zaio. Aurtengo kurtsoa espezialitatera bideratuta egon da, eta nire kasuan Liburutegiak eta irakurzaletasuna izan da aukeratutako minorra. Hori kontuan izanda, literaturarekin zerikusia izango zuen lan bat egitea zen asmo nagusia. Hala eta guztiz, ere literaturaren mundua oso zabala da eta horregatik ikerketa arloa mugatu beharra zegoen.

Generoa, eta horrek literaturan duen trataera, intereseko beste gai bat izanik, bide horretatik jarraitzea erabaki nuen. Literatura eta generoa elkartuko zituen gai bat pentsatzea ez zen erreza izan, izan ere aurretik landua dagoen esparrua izanik ikuspuntu berri bat eman nahi nion. Azkenean, buelta asko eman ondoren, GrAL tutorearen laguntzarekin gai definitiboa izango zena aukeratu nuen: *Neskak xede. Chick-Lit fenomeno haur eta gazte literaturan*.

Hurrengo orrietan gai horri buruz jasotako informazioa islatzen saiatuko naiz. Lana hainbat zatitan dago antolatuta. Lehenik, lanaren oinarri teorikoarekin hasi nintzen; hau da, marko teorikoarekin. Horri esker, lanaren gaian pixkana sartzeko modua izan nuen, besteak beste, informazio zabaletik espezifikogora bilduz. Marko teorikoaren barruan edukiak antolatuak egon zitezten atal desberdinak zehaztu ditut; literatura eta haur eta gazte literatura, haur eta gazte literaturaren inguruko ikuspuntuak, haur eta gazte literaturaren historia eta eboluzioa Espainian eta Euskal Herrian, haur eta gazte literaturaren egoera gaur egun, postfeminismoa eta literatura, Zer da Chick-Lit fenomeno? Atal teorikoa ez ezik, praktikoa ere egin dut. Kasu honetan 12 liburuz osatuta zegoen lagin baten azterketa egin dut. Hamabi liburu horiek analisi fitxa baten bidez analizatu dira, eta fitxa horiek, ondoren, emaitza batzuk ateratzeko beharrezkoak izan dira. Emaitzetan, irakurritako liburuen ezaugarriak eztabaidatuko dira eta baita helduentzako Chick-Lit fenomenoari dagokionez dauden antzekotasunak islatu. Hurrena, ondorioak, non atal teorikoan eta praktikoan bildutako informazioaz baliatuz amaierako konklusioak agertuko diren. Eta azkenik, lanari amaiera emateko, hobetzeko proposamenak. Atal honetan nire lanak izan dituen ahuleziak azalduko dira, eta baita hauek indartzeko eta hobetzeko hartu daitezkeen neurriak ere.

Gainera, lana garatu ahal izateko informazio iturri desberdinak erabili ditut, eta hauek lanaren azkeneko orrialdeetan ikusgai egongo dira erreferentzia bibliografiko moduan. Amaitzeko, eranskinak ere ikusgai egongo dira; lan honetako edukiak osatzeko helburuarekin egin dira.

Besterik gabe, gradu amaierako lan honi hasiera emango diot.

JUSTIFIKAZIOA

Literatura, Igerabide-ren (2013) esanetan, norbanakoaren garapena ahalbidetzen duen baliabidea da. Liburuak irakurtzerakoan eduki eta informazio ugari jasotzeaz gain, balioak ere jasotzen dira, eta hau horrela izanik balio hauek dira pertsonen kontzientzia ohatzen dutenak.

Etxanizen arabera, harreman estua dago haur eta gazte literaturaren eta baloreen transmisioaren artean. Autore honen esanetan, literaturaren lexikoak, estiloak, pertsonaiak irudikatzen diren... diskurtso moralizatzaile bat helarazi dute. Eta hauek eragina dute hartzailearen pentsatzeko eran. Hala eta guztiz ere, obra batzuetan mezua argi dagoen arren, beste batzuetan ezkutuan dauden mezuak agertu ohi dira. Hasiera batean neutroak diruditen testuak, kasu gehienetan alde aurretik dauden estereotipoak sendotzeko balio dute.

Balore horien artean, sexuen arteko desberdintasunak, gizonen supremazia, tradizioak mantentzeko irimotasuna... literaturan behin eta berriz agertzen dira, nahiz eta batzuetan ez oso era esplizituan.

Obra literarioen bidez transmititzen diren balore sexista horien ondorioz, genero ikuspuntu batetik begiratu, literatura arretagune bilakatu da. Orquin-ek (1989) adierazten duen bezala, historian zehar emakumeen eta gizonen rola ondo markatuak agertu dira; gizonen jarrerak menderatzaileak ziren bitartean emakumeenak guztiz pasiboak ziren, eta gainera gizonen menpekoak. Gainera autore honen esanetara emakumearen figura bigarren plano batean gelditu da beti, gizonen pertsonaien itzaletan ezkutua.

Azken honi lotuta, Olid-ek (2009), ikuspuntu sozial eta hezitzaile batetik, emakumearen agerpena literaturan nabarmenagoa izateko beharra dagoela adierazten du. eta behar horietatik abiatuta emakumearen ahalduntzea indartzen zuten obrak publikatzen hasi ziren. Hala eta guztiz ere, emakumeak literaturan izan duen presentzia eta irudikatzen diren modua denborarekin asko aldatu da. Aldaketa hauen barruan, eta emakumeei protagonismoa emateko bide horretan, berria den fenomeno literario bat sortu da: Chick-Lit fenomenoak. Literatura mota honetan, obrak generoen arabera sailkatzen dira, hau da, esplizituki emakumeentzat bideratuta dauden obrak produzitzen dira.

Argi dago emakumeak literaturan bizi izan duen egoerak garapen bat izan duela. Lan honen bidez, garapen hori zein izan den ikusi eta gaur egun bizi den egoera aztertu nahi da. Gainera, generoan oinarritzen den bereizketa literario bat aztertzea interesgarria da, izan ere, galdera ugari sortzen dira honen inguruan, besteak beste, zer da generoa? Zergatik jaiotzen da? Emakumeentzako literaturak zein ezaugarri ditu?

Chick-Lit literatura geroz eta ezagunagoa bilakatzen ari den fenomeno da eta horren ondorioz hartzaileen artean gehiago zabaldu da. Literatura honen hedapenak haur eta gazte literaturan fenomeno honen ezaugarriak egotea eragin du, nahiz eta oraindik ez dagoen Chick-Lit izenez ezagutzen den haur eta gazte literaturarik. Baina izen hori ez duen arren, generoetan oinarritzen den bereizketa literario bat badagoela ukazina da, eta horrela baieztatzen dute Colomer-ek eta Olid-ek (2008): “Portadas de color atrevido, adornos de purpurina y corazones rojos, imitaciones de Jorge Labanda y Ágata Ruiz de la Prada. Un alud de colecciones narrativas y revistas para chicas inunda los escaparates de las librerías actuales” (Colomer eta Olid, 2008, 1.or.).

Helduentzako Chick-Lit klasifikazioa berria den arren, geroz eta ezagunagoa den literatura da, baina haur eta gazte literaturan generoan oinarrituta ematen den bereizketa literario hori oraindik ere nobedade da. Hau kontuan izanda, Chick-Lit fenomenoaren inguruan ikerketa egiteko erabiliko da gradu amaierako lana, eta batez ere fenomeno honek haur eta gazte literaturan duen nola gorpuzten den ezagutzeko.

MARKO TEORIKOA

1.1. Literatura eta haur eta gazte literatura

Historian murgilduz gero, bistan da gizadiaren memorian gordetzen diren historiak eta kondairak asko direla. Kontakizunek jasotzen dute jaio ziren momentuaren eta komunitatearen zati handi bat eta, horri esker, kontakizun bakoitzean testuinguruaren ezaugarriak islatzen dira.

Istorioak belaunaldiz belaunaldi pasa izan dira eta horrek urteetan luze irautea eragin du. Hala eta guztiz ere, mendeetan zehar emandako transmisio hori hainbat eratan egin da; Cerrillo-k (2007) dioen moduan, hasiera batean pentsamenduaren, hitzaren eta memoriaren nagusitasuna nabarmena zenean ahozko transmisioa zen baliabiderik erabiliena. Denbora igaro ahala, idatzizko transmisioa protagonismoa hartuz joan zen eta, hala, istorioak helarazteko tresna berri bati hasiera eman zitzaion: literatura idatzia. Ikuspegi horretatik, literatura bi multzo nagusitan bereiz daiteke: alde batetik, ahozko literatura, eta, bestetik, literatura idatzia, eta biek izan dute garrantzizko rola historian zehar. Izan ere, literaturaren bi agerpen horiek, gizadiaren historia aztertzeke aukera ematen digute, besteak beste, gizarateak, komunikatzeko, adierazteke eta kulturarako baliabiderik nagusienetarikoa izan duelako literatura.

Literatura zer den jakin nahian, Euskaltzaindiako hiztegiak (2018) ematen duen definizioarekin topatzen gara: “Hitzaren bidezko adierazpenean, ahozkoan nahiz idatzian, oinarritzen den artea; era horretako idazlanen multzoa edo multzo jakin bat”.

Hori kontuan izanda, esan daiteke hizkuntza ardatza duen adierazpenerako baliabidea dela literatura. Baina literatura terminoak esparru asko hartzen ditu bere baitan, eta gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen haurrei zuzenduta dagoen literatura bat ere badenik. Etxanizek (1992) ondo azaltzen duenez:

Azken urteotan eta zenbait kausa direla medio, haur literaturaren berpizte baten aurrean aurkitzen gara (...). Arrazoiak ugari dira, baina oro har, mundu osoa harturik, haurtzarolari ematen zaion tratamendu berria (haurra ez da gizon-emakumetxo bat, bere nortasuna eta ezaugarriak dituen pertsona baizik) eta oraingo pedagogia aurrerakoia dira berpizte honen zergatiak (Etxaniz, 1992, 11. or.).

Haurra ezaugarri propioak dituen norbanako gisa hartzen bada, haientzat bideratuta dagoen literaturak ere ezaugarri propio batzuk izango ditu. Hala ere, haurrentzako literatura ulertzeko garaian ikuspuntu desberdinak daude.

1.2.Haur eta gazte literaturaren inguruko ikuspuntuak

Haurrentzako literatura, izenak adierazten duen bezala, hurrei bideratuta dagoen literatura da; “La literatura infantil es la obra artística destinada a un público infantil”. (Bortolussi, 1985, 16. or.).

Aurreko baieztapenarekin bat dator Merlo (1975); izan ere, bere aburuz haur literatura haurrentzako bideratuta dagoen lana da. Hala ere, autore honek beste zerbait ere badio: haurra hartzaile nagusi gisa aurkezten duen arren, literatura mota hori ekoiztearen arduraduna heldua dela esaten baitu.

Ildo horretatik, Perriconi-k (1983) haurrentzako literatura era argi eta justifikatu batean definitzen du:

Es un acto de comunicación, de carácter estético, entre un receptor niño y un emisor adulto, que tiene como objetivo la sensibilización del primero y como medio la capacidad creadora y lúdica del lenguaje, y debe responder a las exigencias y necesidades de los lectores (Perriconi, 1983, 5.or.).

Hemen ere argi adierazten da heldua dela haurrentzako literatura sortzearen arduraduna, baina aipatzen du, orobat, material hori egiteko garaian haurren ezaugarriak eta gaitasunak kontuan hartu behar direla.

Bestalde, Sosak (1973) beste ikuspuntu bat ematen du: umeari gozamen estetiko eta afektibitatea eskaintzea helburu duen kreazioa da haur literatura. Lan horiek haurren ezaugarriak kontuan izanda sortuko dira, baina berak planteatzen duen kritikaren arabera, haurrentzako obrak haien ezaugarrietara moldatuak dauden arren, horrek ez du esan nahi lan horietan erabiltzen diren edukiak, balioak edota hizkuntzak haurren inteligentzia gutxietsi behar dutenik. Hau da, idazle batek literatura ekoizten duenean hartzailea zein den ezagutu behar du eta, horren arabera, obra batek norabide bat edo beste har dezake.

Gauza bera gertatzen da haur literatura egiten denean, autore batek haurrentzako obra bat idazterakoan haurren ezaugarriak kontuan hartu behar ditu, eta, beraz, bere lana horietara moldatu. Baina Sosa-k (1973) dio umeak gehiegi babestu nahi izateagatik askotan obretan dauden edukiak, balioak edota erabiltzen den hizkuntza gehiegi sinplifikatzen dela. Argi dago, haur baten kognizioa ez dela heldu batena bezain aurreratua, baina horrek ez du esan nahi haur baten dituen ulermen gaitasunak gutxietsi behar direnik.

Etxanizek (1992), haur literatura definitzen duenean, haurrek irakurri eta ulertu dezaketen literaturari egiten dio erreferentzia. Hau da, Etxaniz-en aburuz, haur literaturak ez du zertan izan hurrei espreski zuzendutako literatura, baizik eta haurrek ulertu dezaketen literatura oro.

Dobles-ek (2005), ordea, mantentzen du haur literatura hurrei bideratuta dagoela. Hala ere, aurreko ideia horri beste ideia interesgarri bat ere gehitzen dio; izan ere, haren iritziz haur literaturaren hartzaile nagusia haurra den arren, horrek ez du esan nahi haurra literatura horren kontsumitzaile bakarra denik, aitzitik, helduek ere gozatu dezakete. Horregatik dio autore horrek, haurrentzako literaturak ez duela hartzaile mugaturik.

Hainbat autorek haurrentzako literaturaren kontzeptuaren inguruan duten ikuspuntuari erreparatu ondoren, argi dago ez dagoela literatura hori ulertzeko era zehatzik, eta, horren ondorioz, termino horren interpretazio desberdinak daude.

Orain arte behatutako definizio eta ikuspuntu guztiak kontuan izanda, haur literatura hizkuntza ardatz duen adierazpen artistiko gisa definitu daiteke, non hartzaile nagusia haurra den. Literaturaren dituen kategoria guztietan bezala, obra bakoitzaren edukiak hartzaileari egokituak egon behar dira, eta haur literatura ez da salbuespen. Horregatik, literatura horren ekoizleak aintzat hartzen ditu hartzailearen ezaugarriak, beharrak eta interesak, hori baita hartzaileak literaturaz gozatzeko eta kompetentzia literarioa garatzeko bidea emango duena. Horrez gain, haur literaturak gozamen estetikoaren helburu duenez gero, hartzailea entretenitzea bihurtzen da literatura honen funtzio nagusietako bat.

Haatik, haur literaturak ez du beti bizi izan gaur egun duen egoera. Duela gutxi arte, haur literatura ezezaguna izan da, eta ez du merezitako errekonozimendurik jaso. Horretarako hainbat arrazoi daude: alde batetik, kontuan izanda haurra ez dela beti helduengandik bereizi, ez zen uste haurrak behar berezirik zuenik eta, horren ondorioz, haurra ez zen literaturaren kontsumitzailetzat hartzen. Horrez gain, Cerrillo-k (2007)

beste bi arrazoi ematen gehitzen ditu haurrentzako literatura ezezaguna izatearen zergatia adierazteko. Batetik, baztertua izan da artearen historian, literaturaren historian, kritika literarioan eta soziologian, eta, bestetik, gizarteak, komunikabideek eta instituzioek gutxiestxi egin dute haur literatura, eta ez du izan errekonozimendurik.

Horrenbestez, haur literatura bigarren plano batean geratu da historian zehar, eta Etxaniz-ek (1992) esaten duen bezala, “orain gauden egoera honetara ailegatzeko, eboluzio bat eman da, progresio orokor bat eman da haurtzaroan, pedagogian eta haur literaturan”.

Horiek horrela, esan daiteke haur literaturaren kontzeptua eta haren aintzatespena berriak direla. Hala ere, haur literaturaren egoera ulertzeko beharrezkoa da historian murgildu eta haren aurrekariak ezagutzea.

1.3.Haur eta gazte literaturaren historia eta eboluzioa Espainian eta Euskal Herrian

Hasteko, kontuan izanda XVIII. mendera arte haurra gizartearen begietara heldu baten kategoria berean kokatzen zela, haurrek eta helduek arreta bera jasotzen zuten.

Baina mende horretatik aurrera, haurren eta helduen arteko bereizketa bat egiten hasten zirela aipatzen du Cerrillok (2007), eta umea ezaugarri propioak dituen pertsona kontsideratzen. Hala eta guztiz ere, oraindik haurrei zuzendua zegoen literatura bat espreski produzitu gabe zegoen. Etxaniz-ek (1992) dioen moduan: “zaila da haur literatura idatziaren hasiera kokatzea, ia ezinezkoa da esatea noiz hasi den zehatz mehatz”. Baina garai horretan Frantzia ilustrazioa puri-purian zegoen, eta mugimendu horrek haurtzarorako literaturari hauspoa eman zion. Hortik aurrera, haurrei zuzenduta zegoen literaturak protagonismoa hartu zuen, eta Europa osoan zabaldu. Pixkanaka, haurrentzako literaturak autonomia lortu zuen, baina oraindik ere muga handiak zituen. Ezin daiteke ahaztu literaturak ez zuela izaera popularririk, eta hartzaile zuen publikoa, batez ere, burgesia zela. Hori dela eta, kultura adierazpen mota hori jasotzen zutenak klase sozial eta ekonomiko altu batean kokatzen ziren haurrak ziren.

Cerrillo-k (2007) esaten duenarekin jarraituz, Europako burgesiaren agerpenarekin “haurtzaroaren” terminoa aldatu egin zen. Garai horretan familia modernoaren eredu berri bat sortzearekin batera, haurra eredu hori osatzen zuen elementu garrantzitsu izatera pasa zen. Haurtzaroa ulertzeko era berri horretan, haurren

inozentzia babestu nahian, haurrak helduen errealitateak aldendu egiten zituzten, eta haien artean egokituta zeuden material berriak sortzen hasi ziren. Moldatu ziren esparruetako bat hezkuntzarena; horregatik, haurtzararen moduko etapa batean norbanakoek jaso behar zuen heziketa haren beharretara egokitua egon behar zelako ideia zabaldu zen. Eta horrek, haurtzat bideratuta zegoen heziketarekin batera, haurtzako idazketa berezia sortzea eragin zuen.

Hala eta guztiz ere, hasiera batean haurtzako ekoizten ziren obrak edota testuak funtzio didaktikoa baino ez zuten. Hau da, literatura gozamenerako tresna gisa ulertu beharrean, baliabide didaktiko gisa erabiltzen zen, garai hartako ardura hezte eta irakastea zelako, ez entretenitzea.

Baina urteen joanean ulertu da haurtzat bideratuta dagoen literaturak betetzen dituen funtzioak ez direla bakarrik hezitzaileak. Colomer-ek (1998) defendatzen duen moduan, bi dira literaturak betetzen dituen funtzio nagusiak. Alde batetik, orain arte ezagutu duguna: funtzio hezitzailea. Eta, bestetik, funtzio literarioa. Bigarren horretan, helburu pedagogikoetatik aldenduz, literaturak hartzailearen gozamina bilatzen du batez ere. Etxaniz-ek (1992) aipatzen duen bezala, 1697an Perrault-ek kaleratutako *Histories et contes du temps passe avec des moralités* liburuak inflexio puntu bat markatu zuen. Izan ere, liburu horretatik abiatu omen zen haur literatura, eta helburu pedagogikoak, neurri batean, alde batera uzten direlarik literaturaren funtzio literarioak benetako pisua hartu zuen.

Literatura ulertzeko modu honek eraldaketa ekarri zuen berekin. Autoreek literatura didaktizatua ekoizteaz gain, irakurlea entretenitzeko obrak ere ekoizten hasi ziren. Horrek obren edukiak aldatzea eragin zuen, baita gai desberdinak jorratzea ere.

Espanian eta Euskal Herrian ere antzeko eraldaketa izan zuen literaturak, baina eraldaketa honen barruan gerra zibilak izan zuen inpaktua aipatzekoa da. Gertaera horrek literatura munduan bi etapa nagusi markatzen ditu: alde batetik, gerra aurretikoa eta, bestetik, gerra ondorengoa. Etxaniz-en arabera (1992), gerra aurretik, XX. mendearen hasieran, aurreko mendeetan egindako bidetik jarraituz haur literatura indarra hartuz zihoan eta gero eta produktu hobeak ateratzen ziren. Euskal Herrian ere liburugintzaren produkzioak gora egin zuen eta horren arrazoiak, Lopez-en (2000) hitzetan, mende hasieran jaiotako nazionalismoren eraginez sortutako ikastolak, eta haurra ideia nazionalistekin eta kristauekin hezi nahi izateagatik eman ziren. Torrealdaik (1997) esan

bezala: “Baina txikientzako liburuak sistematikoki ateratzeko lehen saioa Euskal Pizkundekoa da (...). Jakina da liburugintza mota hau nazio-eraikuntzari eta bereziki eskolari hertsiki lotua datorrela beti” (Torrealdai, 1997, 230. or.).

Baina egoera guztiz aldatu zen gerra piztu eta ondorengo urteetan. Guda bukatu ondoren Frankok ezarritako diktaduraren ondorioz, Etxanizek (1992) ondo aipatzen duen bezala, geldiene bat izan zen haur literaturaren munduan. Hainbat izan ziren egoera horren eragileak: krisiak, errepresioa, zentsura, idazle eta ilustratzaile askoren emigrazioa... eta horrek Espainia basamortu literario baten erdian kokatzea eragin zuen. Hala ere, Vasques-ek (2003) bere artikuluan idatzitakoak kontuan izanda, haurrentzako narratibak ez ziren guztiz desagertu, izan ere estatua lan horiek kaleratzeaz arduratzen zen. Haatik, obra literario horiek momentu horretan indarrean zegoen sistema politikoa babesteko, mantentzeko eta indartzeko erabiltzen ziren, besteak beste, sistemak defendatzen zuen ideologia zabaltzeko eta indartzeko. Euskal lurraldeetan ere gerra aurretik aurreraturiko guztia bertan behera geratu zen. Lopez-k (2000) esan bezala, orduko liburu guztiak iparraldetik eta erbestetik iristen ziren hasiera batean, eta Euskal Herrian argitara zitezkeen liburu bakarrak, Vasques-ek (2003) dioenarekin bat, garaiko sistema babesten zutenak ziren.

Haatik, 1970. urtetik aurrera diktadura kolokan jarri zen, eta horrek literatura munduan oasi txiki batzuk agertzea eragin zuen. Horrek eragin positiboa izan zuen haur literaturari dagokionez, eta produkzioak gora egin zuen. Vasques-ek (2003) esandakoarekin jarraituz, egoera politiko berriarekin batera esparru sozial eta kulturalen, askatasun handiagoa izan zen, produkzioei dagokionez. Horri esker, ekoizpen literarioa oztopatzen zuten muga ideologikoak apurtu eta edizioei dagokionez gorakada nabarmena nabaritu zen, haurrentzako narratiban batez ere, bai Espainian eta baita Euskal Herrian ere

Espainiako joera literarioak European zeudenengana hurbildu ziren, besteak beste momentuko autore garrantzitsuen obrak editatuz eta itzuliz; Vasques-ek (2003) adibide batzuk ematen ditu, hala nola, Gianni Rodari, María Gripe, Roald Dahl, Christine Nöstlinger, Michael Ende, Maurice Sendak. Haurren artean izandako harrera positiboa aprobetxatuz, aukera paregabea aurkezten zitzaion Espainiari haur literaturan arreta jartzeko, eta bide batez hari bultzada emateko.

70. hamarkadatik aurrera, idazleak Espainiako errealitatea azaleratuko zuten obrak idazten hasi ziren. Sistema politikoaren eta sozialaren egoera islatu nahian, garai hartako narratibek errealismoa zuten helburu nagusi. Eta izaera errealista hori aurrera eramateko bi izan ziren gehien nabarmendu ziren joera estetikoak: fantasia eta errealismoa. Fantasiari dagokionez, errealitateko gai edo problematika batetik abiatuta, elementu fantastikoak gehitzen dituen sorkuntza gisa ulertzen ziren. Hala eta guztiz ere, nahiz eta estilo horretan motibo magikoak erabiltzen ziren, fantasiako literaturan kritika soziala egiteko joera zegoen. Horrekin bat dator Cañizo (1990); izan ere, Cañizok dio, genero fantastikoa ez dela errealitate historiko, sozial eta politikotik aldentzen, bestek beste estilo honetan edozein gai planteatu daitekeelako, jolasaren, umorearen eta poesiaren moduko elementuak erabiliz. Errealismoa jorratzen duten obrek, ordea, arazo edo gai zehatzak lantzen dituzte. Ohiko gaien artean, gertaera historikoen, herrialde bateko gertaerek, egunerokotasuneko gertaerek eta halakoek dute protagonismoa, eta irakurlearengan ikuspuntu kritiko bat sortzea izaten dute helburu. Laburbilduz, errealismoa eta fantasia hartzailea errealitatera hurbiltzeko baliabide modura erabili ziren. Gerra osteko garaian egondako zentsuratik eta mugetatik aldentuta, idazleek adierazpen askatasuna aprobetxatu eta urte luzez bigarren plano batean jorratu gabe gelditu ziren gaien inguruan idazten hasi ziren.

1970. urtetik aurrera HGLren panoramikan ematen den hazkundera handia da, eta gaur egun, Lopez-en (2000) arabera, euskal arloari dagokionez, liburugintza osoaren %20koa da HGL, jatorrizko produkzioa eta itzulpenak kontuan hartuz. Aipatzekoa da, portzentaia horren barruan %23a jatorrizko ekoizpenak direla eta %72,1 itzulia. Datu horiek kontuan izanda, argi dago euskal haur literatura gehiena itzulia dela.

1.4.Haur eta gazte literaturaren egoera gaur egun

1970. urtetik aurrera etapa berri bati hasiera ematen zaio haur literaturan, eta arlo horretako liburuen produkzioak gora egiten du. Etxaniz-ek (1992) dioenez, kantitatearen eta kalitatearen binomioa kontuan izanda, bien arteko korrelazio bat eman zen; hau da, kantitatea ugartzearekin batera, kalitate maila igo egiten zen, eta lehiaketak, azterlanak, kongresuak, erakunde bereziak eta abar abiarazi ziren. Laburbilduz, literaturak garrantzi handiagoa hartu zuenez gero, haren inguruko lan literarioak seriotasun handiagoz egin ziren eta aurrerapen horiek haur literatura mundu osora zabaltzeko bidea eman zuen.

Urteak pasatu ahala, Azkona-k eta Larenas-ek (2013) dioten bezala, literaturaren eta gizartearen artean harreman handia dagoela ikus daiteke. Izan ere literatura obrak testuinguru sozial edota garai bateko elementu ideologikoen adierazle dira, eta beraz, literatura gizarte elementuen erreprodukzioa dela esan daiteke. Horregatik obra literario bat kontsumitzerakoan, ez da kontsumo pasibo bat, parametro sozial eta kultural batzuen barruan kokatzen diren edukiak helarazten direlako.

Gizartearen eta literaturaren artean dagoen harreman hau Vivero-k (2011) genero ikuspegi batetik behatzen du. Generoa, sexuan oinarrituta eraikitzen den ikusmolde soziala da, eta honek emakumeekin eta gizonekin lotutako desberdintasun psikologikoak, sozialak eta kulturalak barneratzea eragiten du. Horregatik, generoaren eraikuntza produktu sozial bat dela kontuan izanda, generoak literaturan duen errepresentazioa aztertzea interesgarria da. Ildo honetatik jarraituz, teoria feministak baliabide erabilgarriak izan ohi dira, besteak beste, gizatalde zapaldu baten inguruko ikuspuntu kritiko bat ematen dute. Beraz, ikuspegi feminista batek emakumeek eta gizonen duten boterearen eta estatusaren errepresentazioa zalantzan jartzea ahalbideratzen du.

Literaturaren arloan, feminismoaren balioetan oinarrituz, emakumeen ta gizonen artean ematen den desoreka hainbat modutan ikusi daiteke. Alde batetik, literaturaren bidez transmititu diren edukiek garrantzi handia izan dute, izan ere emakume eta gizonen inguruko informazio estereotipatua zabaldu dute. Hala adierazten da *Feminiza* aldizkari digitalean:

Hasta la primera mitad del siglo XIX, los personajes femeninos se mostraban sumisos y dóciles, con papeles de esposa, madre o hija. Y los hombres eran los héroes de todo, pero ellas las que los acompañaban, sin más. Adquirían roles secundarios o eran complementos del rol masculino (Feminiza, d.g.)

Blanco-ren (2000) esanetan, literaturaren bidez eredu sozialak zabaldu egiten dira, kasu honetan eredu sozial hegemoniko bat. Liburuetan agertzen diren estereotipo sexistak, sistema patriarkalaren adierazle direnak, maskulinitasunaren moduko baloreak indartzen eta sustatzen ditu eta, aldi berean, emakumearen irudia baztertuta utzi.

Beste alde batetik, literaturaren bidez transmititzen diren edukiez gain, emakumeak pairatu duen ikusezintasunak ere generoen artean desberdintasunak egotea sustatu du. Izan ere, emakumeek idatzitako literatura betidanik egon den arren, emakumeak ez du inoiz gizonak jaso duten errekonozimendua izan. Eta horrela kritikatzeko Virginia Woolf-ek (2013) bere liburuan, *Gela bat norberarena*, emakumearen lanak gizonenak bezain beste baloratu ez direla dioenean, modu honetan hauen lanak inbisibilizatuz.

Hau kontuan izanda, Colomer-ek eta Olid-ek (2008) esan bezala, kritika feministari erronka bat planteatzen zaio. Feminismoari dagokionez, generoen arteko berdintasuna aldarrikatzeko jaio zen mugimendua da, eta urteetan zehar luzez egon da helburu hori lortzeko borrokan. Feminismoaren aldeko ibilbidean Chicharro-k (2013) hiru aro bereizten ditu. Lehenengo aroan, generoen arteko eskubide legeletan aurrerapenak izan ziren. Besteak beste, XIX. mendearen amaieran eman zen lehenengo fase honetan, aldarrikapen feministek jabetza eskubideak, eskubide politikoak eta berdintasun juridikoaren alde egin zuten. Bigarren aroa 60. eta 70. hamarkada bitartean eman zen, eta, lan esparruan, familian eta sexuan berdintasuna lortzearen alde borrokatu zen, arau eta ohitura kulturalak eta baita gizartearen ezaugarri estrukturalak eragindako desoreka gainditzeko. Azkenik, 90. hamarkadan feminismoaren ikuspegia guztiz aldatu zen, eta zentzu kritiko edo postfeminista zuen hirugarren aroari hasiera eman zitzaion. Aurreko faseetan egindako aldarrikapenak emakumea biktimizatzeko joera zuela adierazita, postfeminismoak berdintasuna lortzeko ideia berri batzuen alde agertu zen.

1.5. Postfeminismoa eta literatura

Projansky-ren (Menendez, 2013 lanean aipatua) arabera, *postfeminismo* terminoa, lehen aldiz, Susan Bolotin kazetariak erabili zuen The New York Times egunkarian 1982an, *Voices from the Post-Feminist Generation* izena zeraman artikulua publikatu zuenean. Bertan ondorengo hau idatzi zuen: “Encontraréis muy pocas personas felices, entusiastas y relajadas que sean ardientes defensoras del feminismo. Las feministas son en realidad almas torturadas” (Bolotin, 1982, Menendez, 2013 lanean aipatua).

Postfeminismoa Menéndez-ek (2013) *backlash* gisa definitzen du, hau da, aldaketa sozial bati erantzunez ematen den erreakzioa, kasu honetan feminismoari begira. Feminismoaren bigarren aroan jarrera erradikalak nabarmendu ziren, desberdintasun

sozial eta legalei aurre egiteko. Etapa horren barruan, berdintasunaren aldeko borrokan, emakume asko ahaldundu ziren, baina prozesu horretan egondako jarduera erradikalaren ondorioz feminismoaren eta feministen inguruan ideia estereotipatu bat sortu zen. Horrek emakume guztiak feminismoak defendatzen zituen ideiekin ez identifikatzea eragin zuen eta horregatik feminismoaren etapa berria sortu zen: postfeminismoa.

Ferris-ek eta Young-ek (2008) esan bezala, postfeminismoa feminismoaren lorpenetatik abiatuta jaiotzen den mugimendua da. Feminismoaren bigarren aroko baloreek mugimendua homogeneizatzen zutela kritikatu, postfeminismoak feminitate arau berriak proposatzen ditu. Hemen ere helburua emakumearen emantzipazioa den arren, hau lortzeko bidea desberdina da, hirugarren aro honetan emakumeek askatasuna lortzeko haien bizitzarekin eta gorputzarekin nahi dutena egiteko aukera aldarrikatzen dute. Postfeminismoak defendatzen dituen ideiak feminismoak aurreko bi boladetan defendatzen zituenei kontrajarri egiten zaizkie, eta feminismoak itxura fisikoa, moda, edo ezaugarri femeninoak sistema patriarkal batek sortzen dituela kritikatu duen bitartean, postfeminismoak ideia hori ukatu egiten du, besteak beste adierazten duelako generoen arteko berdintasuna lortzeko ez dagoela zertan feminitasun tradizionalari uko egin. Eta horrela adierazten du Biswas-ek (2004):

Lo que quizás ha creado la brecha más grande entre la más reciente y la ola anterior es que nosotras, mujeres originarias de todos los rincones del mundo, ya no peleamos en contra de nuestra femineidad y nuestro lado maternal sino que hemos aprendido a celebrarlo y promoverlo. Las mujeres de esta última ola pretenden destruir los conceptos erróneos que la gente asocia con las feministas. Saben que ser feminista y luchar por la igualdad no tiene nada que ver con cortarse el cabello, dejarse crecer el vello en las piernas y otras áreas del cuerpo, ser lesbianas o jugar rugby, tal y como muchas de la segunda ola hicieron y siguen haciendo. Al contrario, para ellas ser feminista significa maquillarse y usar vestidos, casarse y tener hijos, bordar y usar color rosa y ser, al mismo tiempo, capaces de enlistarse en el ejército o en un grupo de atletismo (Biswas, 2004, 69. or).

Mugimendu sozial hau kultura popularraren elementu batzuetan ere islatu zen, hala nola literaturan, eta horrela adierazten du Chicharro-k (2013) bere artikuluan. Postfeminismoaren testuinguruan literatur fenomeno berri bat jaiotzen da, neskontzako aurkezten dena: Chick-Lit fenomenoa

1.6.Zer da Chick-Lit fenomenoa?

Hitz baten jatorria zein den jakiteak horren esanahia asko argitzen du. Hori kontuan izanda, fenomeno horri buruz gehiago sakontzeko helburuz Chick-Lit izena nondik datorren aztertzea lagungarria da. Ikusten den bezala, *Chick-Lit* terminoa bi izen desberdinez osatuta dago, alde batetik *Chick* eta bestetik *Lit*.

Chick izenari dagokionez, *Cambridge* hiztegiak, bi esanahi desberdin ematen ditu. Lehenengo definizioaren arabera, termino hau “chicken”-en laburdura bat izango litzateke, beraz honek hegazti txiki bati, zehazki txito bati, egingo lioke erreferentzia. Bigarren definizioan ordea, “emakume gaztea” gisa definitzen delako. Hala eta guztiz ere bigarren definizio honekin batera informazio gehigarri bat ematen da: “this word is considered offensive by many women”.

Eta azkenik *Urban Dictionary*-k (2006) hirugarren definizio bat eskaintzen du, termino honen beste ikuspegi bat emanez: “A loose term used to describe a girl, usually a cute girl. Rarely ever used to describe a baby chicken. A baby chicken is just... a baby chicken. So, Chick=(cute)girl”.

Hitz honen esanahi desberdinak zeintzuk diren ezagutu eta gero argi dago haien artean desberdintasun bat dagoela. Batek hegazti bati erreferentzia egiten dion bitartean besteek emakume batek dituen ezaugarriei egiten dio. Hitz honek izan duen garapena edo esanahi batetik bestera eman den deribazioa OED-k (Oxford English Dictionary) azaldu dezake. Izan ere hiztegi honetan agertzen den informazioaren arabera, 1320an Sheakesper-ek *La Tempestad* antzerkian lehen aldiz erabili zuen *Chick* terminoa pertsoneri egokitzen zitzaien adjektibo bezala: "My Ariel; chicke That is thy charge."

Baina termino hau gehienbat emakumeei esleitzen zaie, eta hau horrela izatearen zergatia ere OED-k ematen digu. Hiztegiak azaltzen duen bezala, 1927an publikatu zen

Elmer Gantry obran, Sinclair Lewis idazleak esaldi hau erabili zuen: “He didn’t want to marry this brainless little fluffy chick”. Idazle honek *Chick* terminoa erabilitakoan zuzenean emakume bati erreferentzia egiteko izan zen. Gainera, termino honen aurretik dauden hitzei erreparatuz gero, “Brainless (ergela),” “little (txikia),” and “fluffy (xamura) emakumearentzat guztiz gutxiesgarriak diren hitzak direla ikusten da. Beraz, esaldiaren zentzu orokorra kontuan hartuz gero *Chick* terminori esanahi negatibo bat ematen zaio.

Hori gutxi balitz, kontuan izan behar da, *Chick* hitzren lehenengo definizioaren arabera, txito bati egiten diola erreferentzia hau da, oilo heldugabe bati. Hitz hau emakume bat definitzera pasatu izana, infantilizazio bat dela esan beharra dago, bestela ez dago beste arrazoirik “txito” esan nahi duen hitz batek genero bat izendatzera pasatu izana azaltzeko.

Bestalde, aurretik esan bezala, Chick-Lit kontzeptua bi izen desberdinez osatuta dago. Bigarren izenari dagokionez, *Lit*, ingelesez “literature” hitzaren laburdurari egiten dio erreferentzia. Beraz, bi hitz horiek elkartuz gero, zentzu literalean itzultzen bada “emakume gazte guapentzako literatura” edo “neskatxentzako literatura” gisa ulertuko litzateke.

Chick-Lit izenez ezagutzen den literaturaren alderdi honek irakurleak emakumeak izatea bilatzen du. Termino hau, Ragaišienè-k (2008) adierazten duen bezala, 1995ean azaldu zen lehen aldiz Cris Mazza novelista estatubatuarrek *Chick-Lit: Postfeminist Fiction* liburua publikatu zuenean. Liburu honekin batera, obrari izena emateaz gain, fenomeno bati ere izena eman zitzaion, urteekin geroz eta gehiago nabarmenduko zena industria literarioan.

Fenomeno honen definizioaren bila, *Chicklitbooks.com* web orrian bilaketa egin da, non Chick-Lit generoari buruzko autoreak eta nobelak aurkitu daitezkeen. Orrialde honek ematen duen definizioaren arabera:

Chick-Lit es un género compuesto por libros que han sido escritos mayormente por y para mujeres [...] Normalmente tienen un tono personal, ligero y humorístico. Los argumentos consisten, sobre todo, en los aspectos habituales de la vida de la mujer, como el amor, el matrimonio,

las citas, las relaciones, la amistad, los compañeros de piso, el ambiente de trabajo, el peso, las adicciones y mucho más.

Haatik, Chick-Lit zer den azaltzen duen definizio bat badagoen arren, Whelehan-ek (Ryan, 2010 lanean aipatua) ondo esaten duen bezala, berria den fenomeno da eta beraz oraindik eboluzionatzen ari den generoa izanik zaila da literatura honen ezaugarriak zehaztea. Hala eta guztiz ere, ezaugarri komun batzuk atera daitezke eta Ryan-ek (2010) Chick-Lit literaturan agertu ohi diren zazpi elementuren zerrenda planteatzen du Cathy Yardley-ren liburan (*Will Write For Shoes: How To Write A Chick Lit Novel*) oinarrituta:

1. Nobela gehienak hiri batean girotuta daude, besteak beste hiri batean bizitzeak bizi estilo kitzikagarriaren, azeleratuaren eta *fashionaren* seinale dira eta.
2. Pertsonaia protagonista gehienak erakargarriak diren lanpostuak dituzte. Normalean editorialean, modaren edota publizitatearen alorrean ibili ohi dira.
3. Inbidiagarria den lanpostu horretan, gorrotagarria den pertsonaia bat agertu ohi da, batzuetan lankide bat, enpresako edo lan egiten ari den lekuko nagusia... normalean pertsonaia horrek merezitako zigorren bat jasotzen du, eta pertsonaia nagusiari poztasun handia sorrarazten dio horrek.
4. Protagonistek lagun min bat edo lagun talde bat du. Lagun horiek neskak izan ohi diren arren, batzuetan homosexuala den lagun bat agertzen da.
5. Protagonista istorioaren momentu batean mutil batez maitemindu egiten da. Batzuetan mutil hau ausaz ezagutzen du eta beste batzuetan bilaketa baten ondoren, besteak beste Interneten bidez edo planeatzen diren hitzorduen bidez.
6. Pertsonaiek garrantzi handia ematen diote itxura fisikoari, bai gorputzari eta baita janzteko erari ere. Gustuko gorputza lortzeko bidean, ariketa fisikoa egiteaz gain, kirurgia estetikoaz baliatzen dira. Arropari dagokionez, marka famatuek presentzia handia izan ohi dute.
7. Obra askotan protagonistak gertaera nagusi bati egin behar dio aurre, eta istorioa horren inguruan ematen da. Gertaera hori desberdina izan ohi da kasuaren arabera, baina errepikatzen diren adibideak daude: apartamentuaren galera, lanik gabe geratzea, bikotekidearekin apurtzea...

Laburbilduz, Jackson-ek (2010) bere artikulua bidez adierazten duen bezala, Chick Lit-ek dituen elementuek gaur egungo emakumeen egunerokotasun batean ohikoak

izan daitezkeen egoerak islatzen dituzte. Fenomeno hau 90. hamarkadan jaio zenean, hartzaile nagusiak 20 eta 40 urte bitarteko emakumeak ziren, baina Olid-en (2009) esanetan, XXI. mendetik aurrera fenomeno hau zabaldu egiten da eta honekin batera baita hartzaileen esparrua ere.

Oraindik ere Chick-Lit helduentzako bakarrik den literatura kontsideratzen da, baina ezin da ukatu eskusiboki neskeentzat produzitzen diren obrak haur eta gazte literaturan ere existitzen direnik. Horrela baieztatzen du Olid-ek (2009):

Al margen de la idea generalizada de que hay ciertos tipos de libros que leen preferentemente los niños y otros que leen preferentemente las niñas, en todos los libros, incluso los que podrían considerarse como “unisex”, encontramos estereotipos masculinos y femeninos determinados, que reflejan cómo se espera socialmente que sean los hombres y mujeres en el momento histórico en que se vive (...). Pero no deja de sorprender el renacimiento y la gran expansión en las librerías más comerciales una de las colecciones destinadas específicamente a las chicas que suponen un hito respecto al tratamiento de la identidad femenina (Olid, 2009, 169. or).

Autore honek hitz hauekin esaten duenari erreparatuz, generoan oinarritzen den bereizketa literario bat ez ezik, neskei literatura honen bidez esleitzen zaizkien ezaugarriak kontuan izan behar dira. Izan ere ezin da ahaztu, Etxaniz-ek dioen bezala (2004), literaturak pertsonen pentsatzeko eran eragina duela, mota desberdinetako ideien edota balioen transmisioaren bidez. Eta baieztapen bera egiten du Orquin-ek ere (1989): “La literatura tiene un extraordinario poder de sugestión y todo gran lector sabe en qué medida los personajes de ficción han conformado su propia vida, su manera de sentir y de pensar” (Orquin, 1989, 15. or.). Horregatik, irakurtzen den literatura ikuspuntu kritiko batez ikusi behar da, eta, beraz, Chick-Lit obrak ez dira salbuespen. Literaturan islatzen diren genero estereotipoak identifikatzeko, Sanchez-ek (2014) hainbat irizpide ematen ditu.

- Pertsonaiak aurkezteko era: pertsonaia gehienak, bai lehen mailakoak, bai bigarrenekoak ere, maskulinoak dira. Horren ondorioz, istorioan zehar gizonaren presentzia emakumearena baino askoz ere nabarmenagoa da. Honetaz gain pertsonak aurkezterakoan emakumei edertasunarekin lotura duten ezaugarriak

esleitzen zaizkie, eta gizonen kasuan, ordea, horrek ez du berebiziko adierazgarritasunik.

- Agertokia: 80. hamarkadatik aurrera, irakurleak egunerokotasun batean bizi ditzakeen egoerak irudikatzen dira. Hori kontuan izanda, pertsonaia femeninoak etxe barruan irudikatzen dira, maskulinoak ordea etxean, kalean, lanean...
- Ezaugarri psikologikoak: generoaren arabera, ezaugarri psikologiko batzuk edo beste gailenduko dira pertsonaien izaerari edota haien atean ematen den portaerari dagokionez. Emakumeen kasuan, hauek duten jarrera goxoagatik, onberatasunagatik eta izaera konformistagatik nabarmentzen dira, baita beste pertsonen zainketen arduradun izateagatik ere. Pertsonaia maskulinoek ordea, bestelako rolak betetzen dituzte, eta ausartak dira, irudimen handikoak, adimentsuak eta, batez ere, segurtasun handikoak.
- Lanbideak: emakumea etxeko lanetan eta seme-alaben zainketan irudikatzen dira batez ere. Hala ere, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak ere badauden arren, enplegu feminizatuetan kokatzen dira, hala nola irakaskuntzan, erizain lanetan, garbitzaile gisa... Gizonen kasuan, berriz, lanbidea etxetik kanpo daukate, eta normalean betetzen dituzten karguak goi-mailakoak dira.

Amaitzeko, esan beharra dago obra batean informazioa ez dela bakarrik testuetatik eskuratzen, izan ere ilustrazioek ere eduki ugari helaraz ditzakete. Etxaniz- ek (2002) ondo esaten duen bezala:

Haur literaturako liburuetan hitzaren eta irudiaren arteko osaketa dugu eta, alde horretatik, aipaturiko obrak aztertzerakoan osagai biei egin beharko litzaieke erreferentzia; hots, testuaren eta irudiaren kritika behar dugu; are gehiago haur txikientzako liburuetan, hauetan irudiaren lengoaiak sarritan testuarenak baino gehiago komunikatzen baitu (Etxaniz, 2002, 70. or.).

Horregatik, ilustrazioek ematen duten informazioa ondo behatzeko, Lopez-ek (2014) dioen bezala, bertan azaltzen diren irudikapen fisikoei eta erabiltzen diren koloreei ere jarri behar zaie arreta:

- Kolorea: Pertsonaiek erabiltzen dituzten koloreak, edota pertsonaia bakoitzaren inguruan dauden objektuen koloreak, desberdinak izango dira genero bakoitzaren arabera. Tradizionalki kolore “pastelak” femeninotasunarekin erlazionatu dira, hauek lasaitasunaren eta pasibotasunaren adierazle direlako. Kontrakoa gertatzen da genero maskulinoarekin lotzen diren koloreekin; kolore hauek biziagoak dira, dinamismoa adierazle.
- Irudikapen fisikoa: Pertsonaia femeninoetan irudikapen fisikoa ezaugarri esanguratsuenetariko bat da. Emakumeak edertasun handiz irudikatzen dira, kasu batean izan ezik: pertsonaia maltzurra denean, orduan sorgin itxura ematen zaio. Gizonen kasuan, ordean, edertasuna ez da ezinbestekoa den ezaugarri bat; izan ere, beste aspektu psikologiko batzuk goraiatzen dira, besteak beste, ausardia, pertseberantzia edota abilezia.

IKERKETAREN ABIAPUNTUA ETA HELBURUAK

Historian zehar, emakumeak eta neskak bigarren plano batean gelditu dira literatura arloan, baina, literatura aldatuz eta eboluzionatuz joan da denborarekin. Urteetan zehar eman diren aldaketa horiek fenomeno berriak agertzea eragin du, eta horren adibide argi bat gaur egun Chick-Lit izenez ezagutzen den fenomeno da. Fenomeno hau nesken literatura gisa definitzen da, eta hartzaile nagusia emakume gaztea izateaz gain, egunerokotasun batean genero femeninoak bizi ditzakeen egoerak narratzen dituzten obrak dira. Literatura honen bidez emakumeari protagonismoa ematen zaio, eta, beraz, historian zehar pairatu duen inbisibilizazioari aurre egiten dio. Haatik, zilegi da galdetzea emakumeen eta nesken egoerarentzat mesedegarria ote den literatura honen ekoizpena, transmititzen dituen balioen eta estereotipoen aldetik.

Honetaz gain, Chick-Lit helduentzako literatura gisa definitzen den arren, haur eta gazte literaturan ere honen arrastoak egon daitezke. Chick Lit-en alderdi hau ezezaguna da hein batean, eta honetan sakondu nahian egingo da lan hau. Horregatik, lan hau Chick-Lit fenomenoaren inguruko azterketa egiteko erabiliko da., fenomeno horren ezaugarrietan sakontzeko asmoz. Lan honen baitan, lau ira bete nahi ditudan helburuak:

1. Chick-Lit fenomenoaren ezagutzea
2. Chick-Lit fenomenoaren haur eta gazte literaturara zabaldu den ikustea
3. Chick-Lit liburuak ikuspegi kritikoaz analizatzea.
4. Fenomeno hau haur eta gazte literaturan nola gorpuzten den ikustea

METODOLOGIA

Lan hau aurrera eraman ahal izateko, azterlan deskriptibo bat egin da, lagin baten behaketan oinarritu den azterketa deskriptibo bat, hain zuzen ere. Lahitte-k (1981) aurkezten duen bezala, metodologia hau diziplina eremu desberdinetan baliagarria izan daiteke, eta kasu honetan esparru sozialera eta kulturalera aplikatzen dena kontuan hartu da. Hala eta guztiz ere, azterketa hau posible izan zedin, aldeztu aurretik bibliografia esanguratsuaren errebisio bat egin da, azterketak oinarri teoriko sendo bat izan zezan.

Bibliografiaren bidez jasotako informazioa bildu ondoren, laginaren hautaketa egin zen; kasu honetan, haur eta gazte literaturako hainbat obrak hautaketa. Lagin definitiboa lortu baino lehen, liburu multzo handi bat jaso eta ondoren horretatik selekzio bat egin zen. Liburu multzo hori osatuko zuten liburuak biltzerako garaian, itxuraz Chick-Lit generoarekin lotura izan zezaketen obrak hartu ziren. Baina jasotako liburu guztietatik 12 bakarrik izan ziren aztertu zirenak. Multzo honetatik egin zen selekzio hau ez zen ausaz egin, irizpide batzuk jarraituz hautatu ziren, aldeztu aurretik zehaztutako irizpide batzuen arabera, besteak beste. Irizpide horiek paratestu batzuetan oinarritu ziren, liburuaren hautaketa mugatzeko eta lagin definitiboa hautatzeko erabilgarriak izan zirenak. Paratestuak, Lluch-ek (2003) azaltzen duen bezala, liburuaren aldeztu aurretiko informazioa eskaintzen duten elementuak dira, eta, haiei esker, obra irakurri gabe hartzaileak informazio gehigarria jasotzen du. Lluch-ek (2003) haur eta gazte literaturarako egokitzen dituen paratestu nagusien artean hiru izan ziren aukeratutakoak:

- Hartzailearen adina: haur eta gazte literaturako obrak dira, 6-12 urte bitartean dauden obrak hain zuzen.
- Azala: neskei erreferentzia esplizitua egiten dioten obrak, horretarako liburuaren izenburuari, azalaren koloreari eta pertsonaiak irudikatze erari erreparatuko zaio.
- Atzeko azala: obraren ezaugarriei dagokionez liburuaren atzeko aldean dagoen informazioari erreparatuko zaio.

Elementu horiek liburuari buruzko aurretiazko informazioa emango zuten, liburu selekzioa mugatzeko lagungarria

Behin liburuen hautaketa eginda, ikerketa lana obra horien azterketan oinarritu zen, irizpide batzuei jarraituz. Irizpide horiek, marko teorikoan aipatu bezala, Sanchez-ek (2014) eta Lopez-ek (2014) zehaztutakoak dira, eta liburu hauen testuek eta ilustrazioek transmititzen dituzten zeharkako mezuak topatzeko lagungarriak dira:

- Testuan:
 - Pertsonaiak aurkezteko era
 - Agertokia
 - Ezaugarri psikologikoak
 - Lanbideak

- Ilustrazioetan:
 - Kolorea
 - Irudikapen fisikoa

Atal teorikoa ez ezik, lan hau posible izan zedin, zati praktikoa ere burutu da. Hau liburu batzuen analisia egitean oinarritzen zen, ondoren bertatik emaitzak eta ondorioak ateratzeko. Liburu hauek leku desberdinetatik jaso ziren, lagina osatzerakoan aniztasuna bilatzen baitzen, eta horregatik hiru esparru desberdinetatik jaso ziren liburuak: liburutegietatik, eskolako liburutegi batetik eta etxetik. Hala eta guztiz ere laginen tamaina ez zen nahikoa ikerketa hau esparruka bereizi eta ondorioak ateratzeko eta, beraz, emaitzak ezin dira eremura orokortu. Liburutegia izan da liburu gehien bildutako lekua, 10 liburu besteak beste, Ignacio Aldekoa eta Judizmendiko liburutegien artean. Eskolako liburutegi batetik ere liburu bat jaso zen eta azkenik etxeko apalategitik ere baliagarria izan zitekeen beste bat hartu zen.

Guztira 12 izan ziren bildutako liburuak, eta denak lehen hezkuntzako etapako adin tartekoentzat bideratuta, hau da, 6tik 12 urtetara bitartekoak. Obra hauek idatzita zeuden hizkuntza ere aipatzekoa da, izan ere, nahiz eta hasiera batean ez zitzaion liburuen hizkuntzari erreparatu zer esateko badago. 12 obretatik guztiak erdaraz idatzita zeuden, baina horietatik bakarrak zuen gaztelania jatorrizko hizkuntza, hau da, 12 liburuetatik 11 ingelesez idatzi direla eta ondoren gaztelaniara itzuli direla. Hala eta guztiz ere, jatorrizko liburuak eta itzulitakoak sistema literario berdinarekin parte direla kontuan izanda, Chick-Lit-a Espainiako literaturan nabarmena dela ondorioztatu daiteke. Ez ordea euskal literaturan, besteak beste, laginaren bilaketan ez zelako ezta obra bat ere

Honetaz gain, informazioa obretatik ateratzeko, eta ondoren emaitzak egiteko, analisi fitxa batzuk erabili dira irakurri den liburu bakoitzetik informazio zehatua biltzeko. Analisi fitxak atal desberdinak zituen; lehenik eta behin liburuaren datu orokorrak, besteak beste, idazlea, ilustratzailea, itzultzailea, argitaletxea eta urtea, bilduma eta azkenik orri kopurua. Honetaz gain, liburuaren azalaren analisi txiki bat eta istorioaren laburpen bat ere. Azkenik, marko teorikoan esan bezala, Sanchez-ek (2014) eta Lopez-ek (2014) zehaztutako hainbat irizpiderekin ere osatu da taula, ondoren liburuen testuak eta ilustrazioak arretaz behatu ahal izateko. 12 liburuak irakurri eta gero 12 analisi fitxa atera ziren, espazio faltagatik eranskinetan ikusgai daudenak. (*Ikus. 41. or.*)

Hala, hainbat liburu jaso, irakurri eta aztertu ondoren, asko izan dira obra hauen inguruan atera diren emaitzak.

Analisi honetatik atera daitezkeen emaitzak bi zatitan banatu daitezke. Lehenengoa, azalari eta atzeko azalari erreparatuz egiten dena. Honi esker, obra bat kanpotik ikusita, hau da, irakurri gabe, ateratzen den informazioa jasotzen da. Eta, bigarrenik, liburua arretaz irakurtzerakoan biltzen den informazioa.

Liburu batek ireki gabe ere datu ugari eman ditzake eta horregatik hau izan da analisiaren lehenengo zatia. Honi esker, hautatu diren liburu guztiak bilduma baten parte direla ikus daiteke, hau da, ez dira obra solteak baizik eta bilduma baten aleak.

Gainera, liburu baten estalkia ere informazio iturri izan daiteke. Hala, obraren izenburua, kolorea eta pertsonaien aurrerakin bat jasotzen da. Kasu honetan, pertsonaiei erreparatuz gero, neskak izan ohi dira obren azalean irudikatuak agertzen direnak, bakarrik, batzuetan, eta taldean, beste batzuetan. Gainera pertsonaia hauek era oso zainduan agertzen dira errepresentatuak, besteak beste, irudi lirain eta atsegin batekin.

Honetaz gain, azala apaintzen duten koloreak ere garrantzi handia du. Jasotako liburuetan kolore ugari topatu daitezke, eta gehienetan biziak dira oso. Baina, liburu guztien artean arrosa da behin eta berriz errepikatzen dena, gutxi edo asko.

Eta obrak kanpotik analizatzeaz gain, haien irakurketa sakon bat ere egin da, eta honek informazio ugari biltzeko aukera ematen du. Lehenik eta behin, obra guztietako pertsonaia nagusiak neskak dira eta beraz protagonismoa haiek bereganatzen dute. Hala eta guztiz ere, bigarren mailako pertsonaia moduan mutil asko agertu dira, eta neskek duten garrantzi bera ez duten arren, protagonistengan eragin handia dute.

Pertsonaiek dituzten jarrerak aipatzea ere interesgarria da, besteak beste, hauetako asko behin eta berriz errepikatzen direlako liburu desberdinetan. Lehenik eta behin, laguntasuna zutabe nagusienetarikoa da. Pertsonaiek lagunengan aurkitzen dute babesik handiena, egunerokotasuneko egoerei aurre egiteko edota hauek partekatzeke. Honen adibide argia *El secreto de la biblioteca (Ikus. 53. or.)* liburuan aurkitu daiteke horrelako esaldiekin: “las amigas están para apoyarse en todo”. Baina obra honetan ez ezik, laguntasunari liburu guztietan ematen zaio garrantzia. Familia ere agertzen den arren, kasu guztietan aitaz eta amaz osatutako bikotea, pertsonaientzat oztopo edo karga bat izango balitz bezala agertzen dira. Horregatik, obra guztietan behin eta berriz errepikatzen

den jarrera taldearekiko edota beste pertsona batekiko lotura da. Marko teorikora itzultzen bagara, helduentzako Chick Lit-aren ezaugarriak zehazten diren atalera hain zuzen ere, laguntasunarekin erlazioa duen puntu bat aipatzen da, laugarren puntua besteak beste. Honen arabera, protagonistek lagun min bat edo lagun talde bat du, eta hauek neskak izan ohi dira. Hau kontuan izanda, ezaugarri hau bete betean errepikatzen dela zalantzarik ez dago.

Baina laguntasuna eta konplizitatea ageri diren bezala, lehiakortasuna eta inbidia ere badaude, eta horrek pertsonaien artean etsaitasuna egotea dakar. Obra askotan protagonistek arerio bat dute, etsai moduan agertzen den pertsonaia hau inguruko beste neska bat izan ohi da eta obra osoan zehar hau barregarri uzten saiatzen da. Egoera hau liburu askotan ematen da, eta batzuetan protagonistak etsai bat duen arren irakurleari ez zaizkio zergatiak azaltzen eta horregatik zuzenean higuigarria dela onartzen da. Beste batzuetan, ordea, arrazoiak ematen dira; *Un paso de baile*-n adibidez protagonistak Laila izeneko etsai bat du, eta berarekiko adierazten duen gorrotoa neska perfektu baten prototipoa betetzen duelako ematen da: “todo lo que hace es perfecto, tan perfecto que no le cuesta nada hacerlo”. (*Ikus. 45. or.*) Gauza bera gertatzen da *Diario de Nikki* liburuan edota *El secreto de la biblioteca*, nahiz eta azken honetan areriotasunaren arrazoia izan mutil batek beste neska bat hobetsi izana: “desde que Ruben la eligió a ella antes que a mí no quiero ni verla”. (*Ikus. 53. or.*) Aurretik idatzitako atal teorikora berriz itzulita, Chick Lit-ek betetzen dituen ezaugarrietatik hirugarren puntuari erreparatuz, orain aipatutakoarekin antzekotasuna izan dezake. Teorian esan den bezala, helduentzako literatura honetan protagonistek areriotasuna adierazten dute beste pertsonaia batekiko, eta obran zehar pertsonaia horrek zigor bat jasotzen du. Haurrentzako literaturan ere berdin gertatzen da, etsai bat agertzen da eta hau barregarri uzten saiatzen dira. Egon daitekeen desberdintasun bakarra etsai honen jatorria da; helduentzako literaturan laneko pertsona bat izan ohi da eta haur eta gazteentzako literaturan, oraindik gazteegiak direnez lanbide bat izateko, laneko pertsona bat izan beharrean eskolako pertsona bat da. Nesken artean egon daitekeen inbidia eta lehiakortasun hori norberak bere buruarengan duen segurtasun ezak eragin ohi du. Horren ondorioz jarrera mehatxagarriak sentitu daitezke eta beraz pertsona horrekiko aurkako jarrera bat ematen da, modu honetan pertsonen artean etsaitasuna sortuz.

Orain aipatu bezala, segurtasun falta da pertsonaia askok aurkezten duten beste ezaugarrietako bat. Obra desberdinetan ikusi daitekeen moduan, pertsonaiek autoestimu baxua dute eta argi eta garbi ikus daiteke *¡Help! El mundo se ha vuelto loco* liburuan, non horrelako esaldiak topatu daitezkeen: “pareces un horroroso dibujo animado- dijo mientras se miraba al espejo” (*Ikus. 49. or.*). Baina liburu hau ez da autoestimu baxuko neskek erakusten dituen liburu bakarra, beste hauetan ere ikus daitezke adibideak: *Un paso de baile*, *Diario de Nikki*, *¿Para qué están las amigas?*, *Se busca príncipe azul* eta *Verano en vaqueros*.

Ikusten denez, autoestimu baxuko neskek agertzen diren obrak asko dira. Eta pertsona batek bere buruarengan duen konfiantza ezak hainbat jatorri izan ditzakeen arren, obra hauen kasuan arrazoi nagusi bat egon daiteke: itxura fisikoari ematen zaion garrantzia. Irakurri diren obretan honen adibideak askotan antzeman dira, *El código del dragón*-en ikusi daitekeen bezala: “me da miedo despeinarme y además no tengo nada que ponerme” (*Ikus. 61. or.*). Eta horrelakoak, *Un paso de baile*, *Diario de Nikki*, *Bromas de hadas* edo *Verano en vaqueros* liburuetan ere aurki daitezke. Pertsonaiak norbere buruarekin ez dira gustura sentitzen hauen itxura gustuko ez dutenean, eta ez da harrizkeoa; izan ere, obra batzuetan ederra eta itsusia zer den adibide zehatzekin esaten da. *¡Help! el mundo se ha vuelto loco* libuaren kasuan, alde batetik edertasuna definitzerakoak “alta, esbelta, pechos grandes... eso sí es tener suerte” esaldia erabiltzen du, eta kontrakoa adierazteko “corpulenta, con granos, la chica a la que todos miran con compasión” (*Ikus. 49. or.*). *Se busca príncipe azul* obran ere berdin ikusten da, alde batetik, ona: “el cambio no me ha afectado para nada, sigo teniendo el pelo largo hasta los hombros, castaño y soy delgada, muy delgada. Mamá piensa que más adelante me alegraré de mis piernas largas y de mi tipo de tabla de surf”; eta, beste aldetik, txarra: “me miro al espejo y suena la alarma: grano nivel 10. Hoy no puedo ir al cole” (*Ikus. 59. or.*). Eta azkenik *Un paso de baile*-n agerturiko esaldi bat: “al menos tiene la piel lisa, vamos, normal. Anna tiene la cara llena de granos”. Itxura fisikoari ematen zaion garrantzia dela eta, edertasunarekin lotutako estereotipo batzuk sortzen dira. Horregatik, edertasun arau horiekin identifikatzen ez direnean neskek haien buruarengan konfiantza galtzen dute. Gainera, irudi perfektu edo idealari egiten zaizkion erreferentziak ilustrazioetan ere islatuta ikusten dira, besteak beste, neska argalak, finak, ederrak, altuak... ikus daitezkeelako testuan zehar.

Itxura ona izateko arau horiek bete nahian, neskek aldaketak egiten dituzte irudia hobetzeko, eta bertatik poztasun sentrazioak eskuratzeko. Aldaketa horien artean, askok arropan edo makillajeetan bilatzen dute babes: “¡mira que cara tenéis, parecéis fantasmas! – pues yo no tengo cara de zombie, mira. Mamá me maquilló a escondidas” *Un paso de baile*-n ikusi daitekeen bezala (*Ikus. 45. or.*), edo *Minifalda rock*-en agertzen dena: “tal vez pudieras darme unas sugerencias para reinventar mi viejo guardarropa”. Baina ¡*Help! El mundo se ha vuelto loco*, *Diario de Nikki* eta *El código del dragón* obretan ere badaude honen adierazleak. Atal teorikoan, Chick Lit-ek betetzen dituen ezaugarriak kontuan izanda, honek seigarren puntuarekin erlazioa izan dezake. Besteak beste, biek egiten diotelako erreferentzia itxura fisikoak duen garrantziari, eta bakoitzak ondo sentitzeko egiten dituen ahaleginei.

Hala eta guztiz ere, kanpoko itxura aldatzea ez ezik, izaera, edota pertsonaiek dituzten jarrerak ere eboluzio bat izan ohi du istorioaren hasieratik amaierara. Pertsonaia askok ezaugarri bat agertzen dute: hasiera batean izaera edo jarrera arduratsua eta zintzoa dutela eta istorioan aurrera joan ahala jarrera horrekin apurtzeko nahia adierazten dutela. *Bromas de hadas* obran honen adibide argia agertzen da: “no tiene ningún sentido tratar de hacerlo todo bien siempre, se acabó el ser tan sensata, ha llegado la hora de divertiste”. (*Ikus. 43. or.*). Baina obra honetan ez ezik, beste hainbatetan ere ezaugarri honen adierazleak topatu daitezke, besteak beste, *Un paso de baile*, *Minifalda Rock*, *Diario de Nikki*, *¿Para qué están las amigas?* eta *El secreto de la biblioteca* obretan. Baina horretaz gain, ezin da esan pertsonaiek aurkezten duten izaerari dagokionez ezaugarri komun edo antzekotasun gehiago daudenik. Hala eta guztiz ere, agerturiko pertsonak sakontasunez ezagutzea ez da batere erraza; izan ere, ez da pertsonaien informazio xeherik agertzen, eta horren ondorioz, egiten dituzten ekintzak, edota beste pertsonaiek elkarrizketetan erabiltzen dituzten adjektiboak, dira hauek ezagutzeko era bakarra. Eta itxuraz jatorrak direla ondorioztatzen den arren pertsonaiak hutsak dira, hau da, bereizitasunik gabeko pertsonaiak. Horregatik, hartzaileari pertsonaia guztiak berdinak direlako sentazioa helarazten zaio; interes berak dituzte denek eta buruan ez dute haien itxura fisikoa edota mutilena den beste ezer.

Egoera askotan ikusi da pertsonaiek izan duten aldaketa hori ere besteen onespena jasotzeko egin dela, mutilena batez ere. Neskek mutilekiko interes handia adierazten dute eta hau obra desberdinetan, ia guztietan, agertzen da: *Un paso de baile*, *¡Help! el mundo se ha vuelto loco*, *Diario de Nikki*, *¿Para qué están las amigas?*, *Rumbo al estrellato*, *Se*

busca príncipe azul eta *Verano en vaqueros*. Azken obra honetan, esaldi honekin topatu gaitzke: “ah estoy enamorada ¿te lo he contado ya? Se llama Eric y es un entrenador del campamento y esta 100% prohibido” (*Ikus. 63. or.*). Gainera, interesak ez ezik hauekin dituzten harremanak ere aipatu ohi dira, eta horren adibide bat *Minifalda Rock* obran ikusi daiteke: “sus labios rozaron los de Martin y sintió como si por su estómago discurrieran decenas de mariposas en un solo instante”. Esaldi honetan, nahiz eta era eufemistikoan izan, sexualitatea presente dago: tximeletak, sexuaren bidez sentitu daitekeen kitzikapenaren adierazle dira. (*Ikus. 47. or.*) Hala eta guztiz ere, ez da soilik nesken aldetik dagoen interesa azaltzen, mutilena ere aipatu egiten da, *El secreto de la biblioteca-n*, adibidez, “ordenad, princesa, y mi voto será vuestro”. (*Ikus. 53. or.*)

Haien arten ematen diren harremanak, normalean, ibilbide bera dute: hasiera batean neskak mutilari begia botatzen dio, eta hortik aurrera bien arteko konkista hasten da. Hau marko teorikoan aipatutako beste ezaugarrietako bat da, bosgarrena hain zuzen ere, non protagonista istorioaren momentu batean mutil batez maitemintzen den. Kasu honetan ausaz ezagutzen dute elkar, eskolako kide bat delako gehienbat, baina ez da Interneten bidez edo planeatzen diren hitzorduen bidez ezagutzen, helduen literaturan ematen den bezala. Bien aldetik interesa dagoen arren, mutila da gehienbat erlazioaren pisua daramana, hau da, berak pautak markatu eta neska horietara moldatzen dela, eta obraren amaieran bikote bihurtu ohi dira. Literatura honek nobela erromantikoaren adierazgarriak dituela ikusi daiteke, non maitasun erromantikoaren eta heterosexualaren ideia transmititzen den. Neskek interes handia dute maitasun eredu idealean oinarritzen den harreman bat sortzeko, beti mutil batekin, neskak soilik lagunak dira eta. Beraz, maitasunarekiko desira bat dagoela ondorioztatu daiteke, baina baita sexuarekiko ere, nahiz eta hau era inplizitu batean agertzen den. Obra askotan musuak eta laztanak agertzen dira, eta halako keinuak ere oso intimoak izan daitezke. Askotan sexu harremanak penetrazioa egotearekin edo ez egotearekin erlazionatzen den arren, beste edonolako jarrera edo ekintza asko ere sexualak izan daitezke.

Honekin lotura duen beste ezaugarri bat, pertsonaiek bakardadeari dioten beldurra da. Ez bakarrik arlo sentimentalari begira, baizik eta egoera desberdinetan haien burua konpainiarik gabe ikustearekin batera babes faltaren sentimenduak hartzen ditu. Hau *El código del dragón* obran agertzen den esaldi batean ikusi daiteke: : “las habitaciones son de dos y somos cinco, una de nosotras tendrá que dormir sola.- ¡No! No podemos dejar

que nadie se quede sola, nos meteremos tres en una habitación”. *Rumbo al estrellato* edo *¡Help! El mundo se ha vuelto loco* liburuetan ere honen adibideak daude.

Pertsonaien adina zehazten ez den arren, 8-14 urte bitarteko pertsonak direla ondorioztatu daiteke. Honek eragina du lanbideen arloa aztertzerako orduan, izan ere, protagonistek ez dute lanik egiten, normalean ikasle gisa agertzen direlako. Hala eta guztiz ere, bigarren mailako pertsonaiak agertu direnean, gurasoak besteak beste, lanbide desberdinak agertu izan dira, eta emakumeenetan aniztasuna nabarmena da. Batzuek etxean egiten dute lan eta beste batzuk etxetik kanpo.

Analisi fitxekin atera diren emaitzekin amaitzeko, agertokiari buruz jaso dena azalduko da. Kasu honetan ez dago esanguratsua izan daitekeen informaziorik, izan ere egoera askotan agertokiak ez dira zehazten eta aipatzen direnean ez du berebiziko garrantzirik. Gainera, ilustrazio gutxi agertu dira espazioa irudikatzeko eta horrek informazioa argi biltzea eragotzi du.

Obra hauek irakurri eta gero, informazio gehien ateratzea ahalbideratu duen atala pertsonaien jarrerari erreparatzea izan da. Honi esker, helduentzako *Chick-Lit* literaturan dauden ezaugarriak haurrentzako eta gazteentzako literaturan ere ageri direla ikusi da. Hala eta guztiz ere, marko teorikoan *Chick-Lit*- ari buruz aipatu diren ezaugarri guztiak ez dira bete, hiru hain zuzen. Lehenik eta behin, testuingurua ez da hiri batean ematen, izan ere aurretik aipatu bezala agertokiei ez zaie berebiziko garrantzirik eman eta ezin daiteke zehaztasunez esan istorioaren kokapena zein den. Bigarrenik, helduentzako literaturan ematen den beste ezaugarrietako bat, eta haur eta gazte literaturan betetzen ez dena, protagonistek dituzten lanbide erakargarriak dira. Baina normala denez, haur eta gazte literaturan ematen diren pertsonaiak adin txikikoak dira eta beraz ez dute lanik egiten. Azkenik helduentzako *Chick-Lit* - ean protagonistak gertaera nagusi bati aurre egin behar diola esaten da, eta istorioa horren ingurukoa da. Marko teorikoan aipatzen den bezala, gertaera hori desberdina izan ohi da kasuaren arabera, baina errepikatzen diren adibideak badaude: apartamentuaren galera, lanik gabe geratzea, bikotearekin apurtzea... honi dagokionez, haurrentzako eta gazteentzako literaturan protagonistei ere aurkezten zaizkien gertaerak anitzak dira, baina ez dute zerikusirik helduentzako literaturan ematen diren adibideekin. Irakurritako obretan, besteak beste *Un paso de baile*, *¡Help! El mundo se ha vuelto loco*, *Diario de Nikki*, *¿Para que están las amigas?*, *Se busca príncipe azul* eta *Verano en vaqueros* pertsona gazte baten errealitatean ematen diren egoerak dira, eta honen adibide bat *¡Help! El mundo se ha vuelto loco* liburuaren

laburpenean ikusi daiteke: (*Ikus. 49. or.*) “Hollyk, Tansyk, Jadek eta Cleok aste batean zehar dituzten gertaera korapilatsuak narratzen dira. Tansyk bizitza osoan zehar bilatzen egon den pertsona aurkitu eta gero, espero bezain ona ez dela konturatzen da. Jadek, saltsa guztietan sartzen du muturra eta arazo ugari ekartzen dizkio horrek. Cleok bere itxura aldatu nahian, aldizkarietan agertzen den bezain erraza ez dela ohartzen da. Eta Holly nazkatuata dago bere gurasoetz”. Hala eta guztiz ere, ez dira beti gertaera errealak *Bromas de hadas, Minifalda Rock, El secreto de la biblioteca, Rumbo al estrellato* eta *El código del dragón* liburuen kasuan gertaera bat izan beharrean misio bat azaltzen da, eta obra misio hori betetzearen ingurukoa da. Haurrentzako eta gazteentzako literaturan ematen diren gertaerak helduentzako Chick-Lit-arekiko desberdinak dira, baina bi literaturetan egoera bati egin behar diote aurre, ondoren istorioaren ardatza izango dena. Beraz ezaugarri hau bi literaturetan ematen dela esan daiteke, nahiz eta era desberdinetan izan.

Marko teorikoan aipatu diren ezaugarrietatik asko haurrentzako eta gazteentzako literaturan islatzen direla ikusi da. Hala eta guztiz ere, irakurritako obra askotan bereizi den beste ezaugarri bat ere aipagarria da: autoestimua baxuko pertsonaiak izatea. Beraz, neskek erakusten duten jarrera hau ere orain arte aipatu diren ezaugarriei gehitu behar zaie.

Honek lanaren hasieran planteatzen den ideia garrantzitsua, hau da, ea helduentzat bideratuta dagoen Chick Lit-ak haurrentzako eta gazteentzako literaturan sartu ote den galdetzen den. Emaitzetan orain arte aipatutakoa ikusi eta gero, argi dago haur eta gazte literaturako obra aztertuetan Chick-Lit-aren ezaugarri asko betetzen direla, horregatik helduentzat ez ezik, haurrentzako eta gazteentzako Chick-Lit literatura ere dagoela ondorioztatu daiteke.

Pertsonaiak ageri dituzten ezaugarrien zerrenda ikusita, eta neskei esleitzen zaizkien atributuak kontuan izanda, argi dago literatura mota hau emakume baten inguruko estereotipoak indartu eta produzitzen dituen literatura dela. Horren ondorioz, obra literario hauetako pertsonaiak ez dira haien bizitza eta gorputzarekin gustura sentitzen, hauek ez dituztelako emakume idealaren ezaugarriak betetzen eta beraz haien irudia osatu gabea dagoela dirudi. Egoera hori hobetu nahian, neskek itxura fisiko polit batean edota mutil batekin duten harremanarekin bilatzen da zoriontasuna edo poztasuna.

Postfeminismoaren ezaugarriekin bat datorren literatura honek emakumeen ahalduntzerako arau berriak markatzen ditu. Mugimendu honen ezaugarri

nagusienetariko bat feminitatearen inguruan aukeratzeko eskubidea da, izan ere, feminismo zaharrak edo bigarren aroko feminismoak, feminismoa eta feminitatea bereizten ditu, biak batera joan ezingo balira bezala. Horregatik, postfeminismoak generoen arteko berdintasuna eta feminitatea bide berdinean joan daitezkeela aldarrikatzen du. Hala eta guztiz ere, Ilief-ek (2018) feminitatearen inguruan zabaldua dagoen ideia hori kontsumoaren kulturak baldintzatuta dagoela dio.

Honetaz gain, nesken sexualizazioa sustatzen eta indartzen duten mezuak ere aurki daitezke, besteak beste hauen edertasun fisikoan eta feminitatean enfasia egiten dute eta. Neskengan behin eta berriz errepikatzen den kezka uneoro sexualki erakargarri agertzeko jasotzen duten presioarekin lotura du. Liburuetan agertzen diren pertsonaiak, edertasun eredu zehatz bat transmititzen dute eta sexualki erakargarri izatea adierazle argi batzuekin ematen da: makilatuta egotea, ondo jantzita egotea eta modara joatea. Neskei nolakoak izan behar duten adierazten zaie, eta honek haien eraikuntza sozial eta kulturalean eragin zuzena du.

Honek lanaren hasieran planteatzen den beste hipotesia argitzeko aukera ematen du; alegia, literatura hau mesedegarria ote den neskentzat, nahiz eta emakumeak eta neskak izan protagonista. Chick-Lit fenomenoak emakumeei edo neskei bideratuta dagoen literatura dela argi geratu da, bai eta haiek direla istorioen ardatza. Baina, aurretik aipatutakoa ikusi eta gero, nesken sexualizazioa eta genero estereotipoak indartu egiten dituen literatura dela baieztatzen da. Beraz hau kontuan izanda, argi esan daiteke Chick-Lit-ek mesede eskasa egiten diola emakume eta neskei.

Hala eta guztiz ere, orain arte ateratako informazio guztiak analisi fitxez baliatuz jaso dira. Haatik, emaitza guztiak ez dira zertan fitxa hauen bitartez atera, izan ere, liburuak besterik gabe irakurritz gero hainbat gauza ondorioztatu daitezke. Horregatik, literatura honek helarazten dituen edukiei erreparatzeaz gain, obra hauen idatz moldeak ere garrantzitsuak dira.

Literatura honetan erabiltzen den hiztegia sinplea, errepikakorra eta estandarizatua da, hau da, edonork ulertzeko moduan idatzita daude. Hizkuntza hau erabiltzek hartzailerearen ulermena ziurtatzea bilatzen du, hau da, irakurleak berebiziko zailtasunik ez topatzea obra irakurri ahala. Erabiltzen den hiztegia bezala, obra hauetan agertzen diren istorioak sinpleak eta errepikakorrak dira. Honetaz gain, diskurtsoa lineala da, hau da, ez du denboran saltorik, beraz hasieratik amaierara jarraian doazen obrak dira.

Gainera, liburuak jarraipen bat izateko sortuak dira, eta horregatik aurkitzen ditugun Chick-Lit obra guztiak bilduma baten aleak dira.

Ezaugarri hauek guztiak kontuan izanda, Chick-Lit paraliteratura gisa definitu daiteke. Termino hau ulertzeko Eco-k (1995) era labur batean ematen du azalpena: “es una literatura que nace como medio de entretenimiento, de diversión de masas”.

Marcela-k (2017) bere artikuluan esaten duen bezala, literatura honen irakurketa arina da, besteak beste erabiltzen den hiztegia erraza delako eta edukiek ez dutelako inolako sakontasunik. Beraz, paraliteratura irakurlearen entretenimendua eta ebasioa bilatzen duen literatura mota da, honen garapen intelektuala bilatu beharrean. Autore honen arabera, literatura hau hartzaileren interesetatik abiatuta sortzen da, eta beraz, hartzaileren gustuko egoerak edo elementuak produzitzen ditu.

Aurreko emaitza guztiak kontuan izanda, Chick-Lit fenomenoaren ezaugarriak haur eta gazte literaturako obretan gauzatzen direla argi geratu da. Marko teorikoan Chick Lit-en bereiztasunak erreferentzia bezala erabili dira haur eta gazte literaturako obrak behatzerako garaian eta, horri esker, irakurri diren 12 obretatik 11 fenomeno honen adierazle direla ondorioztatu daiteke, *¿Qué hacen las niñas? (Ikus. 41. or.)* salbuespena izanik. Hala eta guztiz ere, irakurritako obra hauetan ez dira ezaugarri guztiak aurkitzen, baina bai gehienak.

Azkenik, argi utzi beharra dago hasiera batean atal teorikoan aipatzen ziren zazpi ezaugarriak haur eta gazte literaturan ez direla zehatz mehatz ematen, hauek adinari egokituak agertzen dira eta. Nolanahi ere, literatura moldatua den arren, mezuak berbera izaten jarraitzen du.

ONDORIOAK

Denbora luzez informazioa biltzen eta kontrastatzen ibili eta gero, Chick-Lit fenomenoari dagokionez hurbilpen bat egin diot. Baina lan honen bukaerara iritsi baino lehen, ondorengo lerroetan, orain arte egindako atal guztien bidez jaso diren amaierako ondorioak bilduko dira.

Hasteko, eta lanaren hasieratik ikusi den bezala, Chick-Lit literatura emakumeentzat bideratuta dagoen literatura da. Literatura mota honek beste batzuetatik bereizten dituen ezaugarri propioak ditu, eta hasiera batean helduentzako sortua zen literatura zen arren, lan honen bidez argi geratu da helduen literaturan ematen diren ezaugarri horiek haur eta gazte literaturan ere ematen direla. Bi hauetan dauden ezaugarri komun horiek, pertsonaiek betetzen dituzten berezitasunetan ematen da batez ere; bietan laguntasuna pertsonaien babes nagusienetarikoa da, baina kidetasun hori ez ezik lehiakortasuna eta enbidiak ere ematen dira pertsonaien artean. Itxura fisiko eder bat izatea askoren helburu nagusia da, baita mutil lagun bat izatea ere. Helduentzako literaturan eta haur eta gazte literaturan ematen diren antzekotasun hauek HGL-n Chick-Lit-a existitzen delaren adierazle dira, nahiz eta honek bere ezaugarri propioak ere badituen; pertsonaia eskematikoak aurkezten dira, konplexu eta interes berdinak dituzten neskak, besteengandik bereizten dituzten ezaugarri propiorik gabe

Postfeminismoaren eta paraliteraturaren ezaugarriak biltzen dituen literatura honetan, Olid-ek (2009) dio atzera egite bat dela generoen arteko berdintasunaren bidean. Colomer-ek (1999) arrazoiketa bat eskaintzen du fenomeno honi dagokionez, bere hitzetan 90.eko hamarkadan, “una mayor relativización de los valores, dejó entonces el campo libre a una progresiva influencia de las leyes del mercado en la configuración de los libros infantiles y juveniles” (Colomer, 1999, 44. or.). Literatura honek nesken inguruko mezu estereotipatuak eta sexualizatuak bidatzen dizkio hartzaileari eta honek helburu argi bat du: gehiago saltzea. Bermejo-k (1995) azaltzen duen bezala, irakurlea identifikatuta sentitzen da obrek zabaltzen dituzten baloreekin. Horregatik *Chick-Lit* literatura, industriak produzitzen duen literatura bat dela esan daiteke, merkatuak egiten dituen eskaeretatik abiatuta. Pentsa daiteke, beraz, estereotipoen eta sexualizazioaren atzean gizarte kapitalista eta kontsumista bat ezkututzen dela.

Aurrekoa kontuan izanda, ezin daiteke Chick-Lit desagertzea eskatu, honek duen eskaera handituz doalako eta alferrikako lana izango litzatekeelako merkatuaren legeen aurka joatea. Horregatik helburua bestelakoa da, hala nola, irakurleen eskaintza literarioa zabaltzea, hartzaileen, eta batez ere kolektibo femeninoaren, ikuspuntua zabaldu dadin eta jarrera kritiko bat egon dadin irakurtzen denari dagokionez.

Hala eta guztiz ere ikuspuntu kritiko bat izateko literatura honen ezaugarri guztien jakitun egotea garrantzitsua da. Geroz eta esparru gehiagotara zabaltzen ari den fenomeno honekin kontu handiarekin ibili behar da. Eskoletan batez ere, berebiziko arreta jarri behar da hurrei eskaintzen zaien literaturari dagokionez, izan ere esparru honetan helburu hezitzaileak lehenetsi behar direnez kalitate oneko literatura bermatu beharra dago, balio egokien transmisioa egon dadin.

Hasiera batetik gradu amaierako lana parametro batzuetan oinarrituta egon da eta horrek, neurri batean egindako ibilbideari mugak jarri dizkio. Lan hau, une honetan, bukatutzat ematen den arren, badira hobetu eta sakondu daitezkeen alderdiak. Horregatik, orain arte egindako lana aintzat hartuta eta honekin kritiko izanez, atal praktikoa hobetu, hedatu eta sakontzeko zenbait ideia aurkeztuko dira.

Ikusi den bezala, atal praktikoa 12 libururen analisisian oinarritu da. Neskentzat bideratuta dauden liburuak ez dira denak Chick-Lit erakoak, baina lana egiteko liburuak jasotzerakoan, zuzenean Chick-Lit izan zitezkeen liburuak jaso ziren. Honen ondorioz ateratako emaitzak antzekoak izan ziren eta horrek obren arteko kontraste urria egotea ekarri zuen berekin.

Hau kontuan izanda, lan honetan sakondu nahian, arlo praktikoa aniztasun gehiago bilatzea komenigarria izango litzateke, neskei bideratuta dagoen literatur obra gehiago hartuz. Chick-Lit ez ezik, neskentzako dauden beste obra literarioak hartuko balira, ezaugarri desberdinak aterako lirateke hauen artean, eta beraz emaitzak kontrastatzeko aukera egongo litzateke, eta aniztasun honek lana aberastuko luke.

Hala eta guztiz ere, lan honen ahulezien jakitun izan arren, proiektu hau hezkuntza komunitatera zabaltzea interesgarria izan liteke. Haur eta gazte literaturan Chick-Lit literatura presente dagoen zalantzarik ez dago, baina gai honen inguruan dagoen ezjakintasuna oraindik ere nabarmena da. Hori kontuan izanda, ikerketa hau partekatzea onuragarria izan liteke fenomeno honi buruz ezagutzak zabaltzeko eta baita ikuspuntu kritiko bat garatzeko hezkuntza komunitatearen baitan.

BIBLIOGRAFIA

- Bermejo, A. (1995). *Los tópicos de la novela rosa*.
https://gredos.usal.es/jspui/bitstream/10366/112945/1/EB07_N061_P55-56.pdf
- Biswas, A. (2004). *La tercera ola feminista: Cuando la diversidad, las particularidades y las diferencias son lo que cuenta*.
<http://www.uam.mx/difusion/revista/sep2004/biswas.pdf>
- Blanco, N. (2000). *Mujeres y hombres para el S. XXI: El sexismo en los libros de texto*. In M. A. Santos (Ed.), *El harén pedagógico* (119-148. or.). Graó.
- Bortolussi, M. (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Alhambra.
- Cambridge Dictionary. “Chick” English Dictionary.
<https://dictionary.cambridge.org/es/diccionario/ingles/chick>
- Cañizo, J.A. (1990). *Non sense o surrealismo infantil*. (5- 31. or). Cubells
- Cerrillo, P. (2007). *Literatura Infantil y Juvenil y educación literaria*. Octaedro.
- Chicharro, M. (2013). *Representaciones de la mujer en la ficción postfeminista: Ally McBeal, Sex and the City y Desperate Housewives*.
https://ddd.uab.cat/pub/papers/papers_a2013m1-3v98n1/papers_a2013m1-3v98n1p11.pdf
- Chick-Lit books. (e.g.). <http://www.chicklitbooks.com/what-is-chicklit/>
- Colomer, T. (1998). *La formación del lector literario: narrativa infantil y juvenil actual*. Agapea.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Síntesis
- Colomer, T., & Olid, I. (2008). *Princesitas con tatuaje: las nuevas caras del sexismo en la ficción juvenil*. <http://es.tiching.com/princesitas-con-tatuaje-las-nuevas-caras-del-sexismo-en-la-ficcion-juvenil/recurso-educativo/623622>
- Dobles, M. (2005). *Literatura infantil*. San José: UNED.
- Eco, U. (1995). *El superhombre de masas*. Editorial Lumen.
- Etxaniz, X. (1992). *Euskal haur literaturaren historia*. UEUren Literatura Saila (Ed.), *Haur Literaturaren inguruan* (9-29. or.). Boan S.A..

- Etxaniz, X. (2002). *Euskarazko haur eta gazte literaturaren kritika gaur egun*.
<http://hedatuz.euskomedia.org/805/1/19069076.pdf>
- Etxaniz, E. (2004). *La ideología en la literatura infantil y juvenil*. CAUCE. Revista de Filología y su Didáctica, 27, 83-96.
- Euskaltzaindia hiztegia. (2018). *Literaturaren definizioa*.
http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiambilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&layout=aurreratua&antzekoak=ez&sarrera=literatura
- Feminiza. (d.g.). *Heroínas en la literatura*. <https://www.feminiza.com/heroínas-en-la-literatura/>
- Ferriss, S., eta Young, M. (2008). *Chick ficks. Contemporary women at the movies*.
www.junctures.org/index.php/junctures/article/viewFile/59/54
- Igerabide, J.K. (2013). Munduarekiko harreman emozionalaren irakurketa eskaintzen dio ipuinak haurrari. *HikHasi*. <http://www.hikhasi.eus/albiste.php?id=689>
- Jackson, A. (2010). "Scribbling Women " or Third Wave Feminist Literature? Exploring the Chick Lit Controversy.
<https://ashantijacksonwebfolio.files.wordpress.com/2011/04/scribbling-women-or-third-wave-feminist-literature-exploring-the-chick-lit-controversy.pdf>
- Lahitte, H. (1981). *Aportes teórico-metodológicos al estudio del comportamiento*. Octógono.
- Lopez, A (2014). *Coeducación y estereotipos de género en la literatura*.
<https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/2298/Lopez-Prat.pdf?sequence=1>
- Lopez, J. M. (2000). *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura. Funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*.
http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/manu_lopez_gase_ni_TESIS.pdf
- Lluch, G. (2003). *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*.
https://ruidera.uclm.es/xmlui/bitstream/.../ARC_0007_Análisis_de_narrativas.pdf

- Marcela, J. (2017). *Estrategias de lectura intertextual para jóvenes en la biblioteca pública: acercamiento desde la paraliteratura hacia los clásicos literarios*. http://repository.lasalle.edu.co/bitstream/handle/10185/21519/33111751_2017.pdf?sequence=1
- Menendez, M. I. (2013). *Biopoder y postfeminismo: la cirugía estética en la prensa de masas*. <http://riubu.ubu.es/bitstream/10259.4/2546/1/148-831-1-PB.pdf>
- Merlo, J.C. (1975). *La literatura infantil y su problemática*. El ateneo.
- Ilief, A. (2016). *Postfeminist fiction in chick lit novels*. https://www.researchgate.net/publication/297608635_Postfeminist_Fiction_in_Chick_Lit_Novels
- Olid, I. (2009). *Entre chicos y chicas: la fuerza de los estereotipos. La nueva "chick lit" para adolescentes*. In T. Colomer (Ed.), *Lecturas adolescentes* (169-184. or.). Graó.
- Orquin, F. (1989). *La nueva imagen de la mujer*. <http://prensahistorica.mcu.es/es/consulta/registro.cmd?id=1010724>
- Oxford English Dictionary. Main definitions of chick in English. <https://en.oxforddictionaries.com/definition/chick>
- Perriconi, G. et al. (1983). *El libro infantil*. El Ateneo.
- Ragaišienė, I (2008). *Chick Lit as a New Woman's Fiction: Inscriptions in Marian Keyes's Novel "Watermelon"*. <http://www.journals.vu.lt/literatura/article/view/7802/5679>
- Ryan, M. (2010). *¿Trivial o Loable? Literatura escrita por mujeres, cultura popular Chick Lit*. <https://www.raco.cat/index.php/452F/article/download/208082/277260>
- Sanchez, S (2014). *Roles y estereotipos de género en la literatura para niños y jóvenes: una propuesta de educación para la igualdad*. https://www.researchgate.net/publication/318787702_Roles_y_estereotipos_de_genero_en_la_literatura_para_ninos_y_jovenes_una_propuesta_de_educacion_para_la_igualdad

Sosa, J. (1973). *La literatura infantil: ensayo sobre ética, estética y psicopedagogía de la literatura infantil*. Losada.

Torrealdai, J.M. (1997). *Euskal kultura gaur*. Jakin

Urban Dictionary. (2006). Chick definition.

<https://www.urbandictionary.com/define.php?term=chick>

Vasques, M. (2003). *La actual narrativa infantil y juvenil Española*.

<https://revistas.ucr.ac.cr/index.php/filyling/article/view/4471>

Woolf, V. (2013). *Gela bat norberarena*. Consonni.

Bibliografía aipatua (lagina osatzen duten liburuen zerrenda)

